

ZIRTAK

Jose Inazio Basterretxea

IDAZLEA

Itsasaldia

**B**ada herri tiki-tiki bat –ñimiño eta nanoa– lau haizeek astindutako itsasoaren bazter urdinean bizi dena: Kalkuta, Beijin, Sao Paulo, Tokio... hiritzar horietako bazter-uzo baten tamainakoa. Harroak eta ederrak ditu iparraldeko urak neguan; udan, eme eta nasaia. Itsasketarako gonbita egiten dute uneoro.



JINIGO AZKONA

nahi diote beste batzuek, errebantxan diote: “Begia, begi truk, eta izorra hadi”.

Ahaztua dute horiek erlijiorik eta bortitzenak ere badakiela idazten *Itun berria*. Zahartutakoa gainditzeko idazten da berri hori: marmol beti hotzaren irmotasuna baztertu, eta abagune berriak esnatzen dituen ordularien orratzei erreparatzeko eta erantzuteko.

Urduri, zarata egiten dute orduan ur biziek arroketan. Baina, erloju berriak hala eskatuta, marinel zaharrak erretreta hartu eta tostarteko bizargabeari uzten dio lema.

**BELAK HEDATU.** Irekia bezala, errea ere bada itsasoa, batzuetan; eta antzua, zakarra, gorria, alua... Baina, itsaso da itsasoa; batez ere, zabala, neurgaitza, eta askea.

Egunotan, urteberriaren abaroan, batelak atera dituzte uretara itsasertz urdineko herritar batzuek. Herriko danbolinteroari eskatu diote *Itun berria* idaztera deitzeko herritarrak: labarretako ertzak leuntzeko denen artean, gorrotoa itzaltzeko, zintzur estuak zabaldu eta eguzkiari bide egiteko

Aurretik, goiztiri freskoak eta eguerdi ekaiztsuak beharko dute adiskidetu. Ihintzak eta sargoriak. Adiskidetu, ez ezinbestean ohe berean etzan eta larrua larruaren kontra jarri.

Lan zaila da hori. Hanka sartu eta mina eman batek baino gehiagok egin baitu. Urrundik ireki beharko da bidea: kartzelak errautsi eta kanposantuetako liliak ureztatu. Nik zuri, eta zuk niri.

Aurrera eginez gero, kolosala izango da. Bestela, ez. Bestela, betiko moduan, itsas hondo arretan bazkatuko dira arrain-katu sarraskijaleak, lau haizeek harrotutako itsa-

soaren bazterrean bizi den herri tiki-tikiaren zoritxar eta atsekaberako. ■



Itsaso beti irekiari bizkarra emanda, ekialdeko mendi-zintzur ospelei begira bizi izan dira urte luzetan horko herritar batzuk: haizpe estu horretatik etorri baitzaie –egun argiaren orde– gidari espiritualen haizea. Lagun horiek uste izan dutenez, afrontua baizik ez dator mendebaldetik; hego berotik, ekaitza. Eta, kontrolagaitza begitandu izan zaie iparreko urzelai zabala.

Begiratu bakar eta monolitikoa izan dute herri horretan askok eta askok, baina aldatzen hasita daude gauzak mendi goietan, bai eta ibar sakonetan ere: gehienek ulertu baitute, ulertu, mendealax beharrezko euria ekar dezakeela, ekiak eguzkia, hegoak lehor-puntua, eta itsasoak ufada atsegina. Hartara, ulertu, ulertu dute ezen haitz arteak ez duela markatzen jada puntu kardinalik.

**LEMARI EUTSI.** Itsaslabar urdineko herri horretan, gazte eta zahar asko falta dira beren etxetik, gudu herdoil zaharretan barna galdurik. Kartzela bizi dute herritar horietako batzuek. Atzerria. Kanposantua. Ideiak ideia, txapelean erantsitako gorrotoak eta ezin ulertuak eraman dituzte batzuk eta besteak dauden tokietara.

Alabaina, aingura-kumeak ur-zozoari bezala, egun, ihesi egin nahi diote batzuek iragan antzuari: ur arreak utzi, eta gardeenak hartu. Ezkatak ere aldatu dituzte, aldatu. Krosko berriak eraiki, oihal zuluak josi, sareak konpondu... Baina, lege agorrari eutsi

«  
Egunotan, urteberriaren abaroan,  
batelak atera dituzte uretara  
itsasertz urdineko herritar batzuek.  
Herriko danbolinteroari eskatu  
diote *Itun berria* idaztera deitzeko  
herritarrak: labarretako ertzak  
leuntzeko denen artean,  
gorrotoa itzaltzeko,  
zintzur estuak zabaldu  
eta eguzkiari bide egiteko  
»



irudia:  
Antton Olariaga